

# KOALIZIOKO PARTIDUA

## F D P, LIBERAL DEMOKRATEN PARTIDUA

Alemania'tik gure korresponsal  
dan ERRAMUN  
PENAGARIKANO'k

Elekzioetako planegillen strategian, Bonnekoi bi partidu handien artean, liberalak bigarrenengo "rolle" jokatzeko dute. Biontzako handikap bat da, bi partiduko sistemara eltzeko.

Bere amaia maiz profetizatu da, bainan bitartean bizi da ta nola bizi! Beti gata botaz, zirikatzen. Beste bi partiduko bildurrak daukatenan, adibide bat emateko, atzeriko politikan, han sartzen da FDP ideia berriekin; atzo Israel ezagutzeko, gaur komunisten Europako nazioekin kontaktatu arteko edo baldin bada kidesan sartzeko, bi Alemanien prolema soluzionatzeko.

Liberala berez ukatzen dan partidu bat da. Alde batetik liberalismo bat zaintzen du. Agintean pixu bat jokatu nai luke, bainan liberala dalako agintearan kontra dago. Gizaaldian indarra bat izan nai du, bere bakoitzan urrutiegi joaten da, ain urrutu, batzuetan ezin ditu bere akzio hoyek bukatu, bere egi-

nalean ez dagolako, Horregatik batzutan kristau demokratekin, bestetan sozialistekin elkartuta egoten dira; harekin Bonnen, honekin orain aste bat arte Beko Sajonian, Berlinen. Bainan FDP'k pikadore bat bakarrik al da Alemaniko politikaren zezenplazan?

Liberalak republika feleralan, gutxi gora behera nai ta nai ezko koalizioko laguntzaileak izan dira beti. Norbaitek esan zun bezela: «ezinezkoa da liberalengatik gobernatzu ez izatea», ta arrazioia zeukan.

### PARTIDU NAZIONALISTA BAT

Kaisaren denboran eta gero Weimar'ko republikan, bere lendakariak nai izan zuten partiduetako sistematan konstante bat bezela izatea, erdiko zentzutasunarekin. Bere laterritar zintzoak, FDP'koak, 1933'gn. Adolf Hitleren aldera joan ziran lehenbizikoak izan ziran. Zentzutasuna ta askatasuna alperrik zabaldu zituzten. Momentu hartan ikusi zun, idejak bakarrik Agintea arrapatzeko ezer ez dirala, batasuna ta organizazioa behar dirala botuak, herria irabazteko.

Herriaren partidu handi bat izateko partidua ez zan naikoa. Kapital-burgesak geigi zituen, minbroak gutxiegi. Batzoki gutxi zaleak elkartzeko, formatzeko. Elizaren sinpatiak CDU'rentzat ziran, ez liberal antiklerikalentzako. Sindikatuetak SDP'ri laguntzen diote ta ez FDP antisozialistari.

Ekonominan influentzia handia zeu-

### ADENAUEREN KONTRAKO BURRUKA

Ezaguna da Adenauer'ek komunisten Alemaniarekin batasunik ez zula nai. Alde batetik antikomunista fanatikua zalako, ez zun Ulbricht edo Sobietikoekin kontakturik artu, beste aldetik berriz beste aldekoak berarentzat prusistak dira ta Renanian bezela ez zun nai politika berriz Berlinen jokatzea, Bonnen baizik, Renanian. Liberalak be-

xamarra izaten. Berarentzat geien-gainko (maioria) sistema onena izango zan, hori liberalen bukaera an.

1961'gn. Berlineko krisisean, Adenauer uts batzuetan erori an eta orrela elektorentzat alternatiba bat agertu zan. Liberalak aprobetxatu egin zuten, liberalak naikoa zi-rala Adenaueren era autoritarioaren kontra zeudenak bereganatzeko, baina burgesa ta ain gobernu urrangoa izanik, bildurra ez izateko, kaltebideko esperimenteekin asiko zira-la. Orrela elektioetan Adenaueren kontrako ikurriña eman zuten eta 12'8 % boto irabazi zituzten. Bainan «Victoire a la Pyrrus» bat zan. Elektioetako promesak —inoiz ez gehigo Adenauerekin— ez zuten eutsi. «Errori» hauxe elektoreak ez dute orain arte ahaztu.

Generazio gazteak XIV'gn. giza-diko antikerikalismotik atera nai zun. Sentitzen zuten liberalismoa, sozialismoarekin elkartuta bear zuela etorkizun bat edukitzeko, bainan ondorena erdiki xamarra storri zan, behar bada tendentzi honfako gizon indartsuena, Wolfgang Döring, lasterregi ill zalako; partiduak beregan zeukan reformista ta etorkizunerako buruzagia. FDP ez zan sozial-liberal partidu batean aldatu liberal-nazionala bezela gelditu zan.

Aurtengo elektioetan 1961'go metodoa kopiatuko du. Orduan zion: —koalizioari bainan Adenauer'ik gabe—, gaur diote: —koalizioari bainan Strauss gabe. Orduan esanai ez zion eutsi, zer gertatuko da aurtien?

Beste bide bat ba dute, SDP'ekin koalizioa egitea, bainan au problema handikoa da, beste proba zail baten aurrean daude; orain arte bezela irugarrena burrukan aterako al da?



katen eta ala merkatu libre aurrera ateratzeko bultzatu zuten; ez dugu ahaztu behar Ludwig Erhard liberalatik CDU'ra etorri zala. Kapitalistak bere aldetik asko egin dute bere indarra irau erazitzeko, bainan dana dala partidua betiko irugarren gelditu da.

iriz beti batasunaren alde izan dira.

Beste krisi bat Sarrekoa izan zan. Adenauer'ek statutu bat nai zun Sarrentzako, liberalak Sarre berriz Alemania Federalean artea, ta ala gertatu zan. Kanzelier zarrarentzat FDP asi zan erakaiz

### NAZIO - ARTEKO UNEA

# ALGERIA

RIKARDO ARREGI

Gal onetaz idazteko bildur aundiarekin ibilli naiz. Ez asmatzeko bildurarekin, Galiñera zail zail gal onetaz otezan pentsatzea. Ben Bella bota zutela jakin bezin laister jarri nintzan amorru bizi-an Boumedienne militarrek egindakoaren aurka. Nere sinpatia guztiak zihoazten, eta dihoazte, Ben Bella'rengana. Ori gertatu ezkerotatik amaika komentario ta artikulu irakurri ditut egunero ta asterokotian. Ben Bella ez omen zen realista, ez orain zuten bear bezelako organizazio bat sortu, bere menpekoak agintea kentzea omen da seinaterik onena Ben Bella'k gauzak ez dituela ondo egin ikusteko.

Zoritxarrez gaurko itzeli politikoan ba dakigu zer esan nai duen realismoak, errealdadeari amen esatea eta ez ez dut uste gaurko errealdadea amen esateko modukoa danik. Bere burua errealistatiaz daukatenak derrotatu batzuek besterik ez dira, burrukan asperitu diranak besterik ez dira ta bere kontzientzia iriztezagatik "egiten dugun gutxi au besterik ezin lizeke" esaten dute.

Ben Bella'k ez omen zuten bear bezelako organizaziorik, bear bada erriarengan organizazioetan baino gelago sinisten zuelako. Galiñera ez da ahaztu bear bota zuten egunetan ari zela gobernu berrietzeko ta FLN indartzeko bideak pentsatzen ta pauso olek ejerzitza menperatzegatik emateko asmatan ziran zituen. Eta orre-gatik, organizazio indartsu bat atzetik izan ez zezan bota zuten militarrek, burgesak eta gainentzeko jende fraktsak.

Egun oietan zen Alger'eko billera, irugarren mundukoak antolatutako billera. Ben Bella erori delako billera ori ez da izan. Billera ortan itxaropen aundienak progresistak zituzten eta Ben Bella'ren erortearrekin olek izan dira galdu dutenak. Bai egia da Komunisten China'k ezagutu zuela bereala Boumedienne gobernu-a, bainan billera saltzearren bakarrik zen. Ondo damutua dago geroztik. Ben Bella'ren alde izan ziran manifestazioetan ikusi zen nola Algeria'ko ezkeriar jatorrak erretzen zuten China komunistaren bandera.

Ikusiko dugu zer egiten duten agintari berriak bainan ez dezagun itxaropen aundirik izan. Despolitizazioa, estabilitzazioa teknika, olek dira agintari berrien sinismeneko artikulua. Ba dakigu, zoritxarrez, nortzuek ibiltzen dituzten orrelako itzak eta sinismenak. Naiko seinale da. Etorkizunak ukatu ditzala nere itzak, ori da genea nai nukena Algeria'ren kasuan, bainan ez dut bate-re esperantzarik.

### CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE SAN SEBASTIAN

Euskal irratsaioak

### BASERRIAREN ALDE



Baneri izaneko auziak

Finantza eta auziak

Bestar kuluar


Erosi edo berritzeko diru aurreratzeak, Baserri, lur-trasnak ta abur

Torrelavega'ko Peria joan etorriak



# ALFA

ETXEAN BEARREKO  
JOSTEKO MAKINA



Unean bertan erosten da  
Ordaindu, epe luze erosoetan